

EDITH STEINEN TESTAMENTUA

Espirituzko testamentu bat dirudien testamentu labur honek adiera berezia du, egiten duen pertsona nahiz egina izan zen garaia direla tarteko, Auschwitz-eko (+ 1943-VIII-9) kontzentrazio-eremuan, XX. mendeko izugarrikeriarik handiena eta bigarren mundu-gerra hasi aurretik, hil baino hiru urte lehenago egina izan baitzen.

Edith Steinek, filosofoa eta santa izanik, aparteko argitasunez ikusi zituen nazismoak ibilbidean jarritako abiaburuek ekarriko zituzten emaitzak edo ondorioak.

Aita Santuari ere idatzi zion nazismoak zekarren arrisku handiaz eta basakeriaz oharraraziz.

Testamentu hau dagokion garaian egokiro kokatzeko, 1938-1939. urtetan zehar Alemanian jasotako gertakari sozio-politiko nagusiak gogoratuko ditugu:

1938ko martxoak 13: Alemaniako armadak Austria menpe hartu ondoren, Hitler-ek Austria Alemaniako erresumari erantsi zion.

1938ko urriak 1: Alemaniako armadak Txekoslovakiako Sudeten aldea hartu zuen menpe.

1938ko azaroak 9-10: "kristal hautsien" gaua: naziek juduen aurka eginiko egintza basatiak: judeguen enpresa, sinagoga, hilerri eta abar erraustea...

1938ko abenduak 31: Edith Steinek, Koloniako bere komunitatea arriskuan jartzea saihesteko, Holandako Echt-eko Karmelera egin zuen ihes.

1929ko martxoa: Alemaniarrek Txekolovakia eta Lituaniako alde bat hartu zituzten.

1939ko ekainak 9: Edith Steinek egoera politikoa ikusirik bere espirituzko testamentua egin zuen bere bizitza Jainkoari Eleizaren, Karmelgo Ordenaren, judu-herriaren eta Alemaniaren alde eskainiz.

1939ko irailak 1: bigarren mundu-gerraren hasiera: Polonia-
ren aurkako gerra.

TESTAMENTUA

Bihotz-bihotzez eskertzen dizkiet nire bihotzeko nagusiei eta nire ahizpa maite guztiei (komunitatekoei) beraien artean hartzerakoan agertu didaten maitasuna eta etxe honetan eman dizkidaten zer on guztiak.

Dagoeneko pozik onartzen dut Jainkoak gertatua didan heriotza, oso-soan bere gurariaren peko jartzen naitzelarik. Jainkoari erregu egiten diot har ditzala nire bizia eta nire heriotza beraren ohore eta aintzarako; Jesus eta Mariaren Bihotz txit Santuen eta Eleiza Santuaren nahiera guztietarako; batez ere gure ordena santuaren iraute, santutze eta bikaintzerako, eta bereziki Kolonia eta Echt-eko Karmelen alde; judu-herriaren sinesgabetasunaren medeapenerako eta Jainkoa beretarrek onartua izan da-

Ich danke meinen lieben
 Tanten und allen lieben Mit-
 schwestern von jungen Herzen für die
 Liebe, mit der sie mich aufgenommen
 haben, und für alles Gute, das mir
 in diesem Hause zu teil wurde.

Schon jähzt ich mich dem Tode,
 den Gott mir zugedacht hat, in vollkommener
 Anvertrauung unter Seiner heiligsten Völlen
 mit Feinden entgegen. Ich bitte das
 Herr, daß Er mein Leben und Sterben an-
 nehmen möchte zu Seiner Ehre und Ver-
 herrlichung, für alle Anliegen der heilig-
 sten Herzen Jesu und Mariens und der
 heiligen Kirche, insbesondere für die Erhaltung,
 Heiligung und Vollendung meines selbigen

Bidens, namentlich des Kölnen und des Eichen
 Korns, zur Lohne für den Wohlfahren des
 jüdischen Volkes und damit der Herr von
 den Tieren aufgenommen werde und sein
 Reich komme in Herrlichkeit, für die
 Rettung Deutschlands und den Frieden
 der Welt; schliefst für meine Angehörigen,
 Lebende und Tote, und alle, die mir Gott
 geschenkt hat: daß Niemand von ihnen ver-
 loren gehe.

Am Freitag in der Fronleichnamswochen,
 9. Juni 1939, dem 7. Tag meines 2. Leber-
 stens.

In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti.
 Scr. Teresa Benedicta a Cruce, O. C. D.

din, eta beraren Erregetza osotasunean etor dadin; alemaniarren salbamenerako eta munduko bakearen alde; azkenik, nire senide bizi eta hildako guztien eta Jainkoak eman dizkidan guztien alde: beraietarik inor gal ez dadin.

Ostirala, Gorpuzti jaiaren zortziurrena.

1939ko ekainak 9, nire Gogojardun santuen zazpigarren egunean

In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti.

Ahizpa Teresa Benedikta Gurutzekoa, K.O.O.

(J.U. - P.U.)